

ALKATE JAUNARI

Alderdi Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendia andreak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 98. artikulua oinarri hartuta, Loiolako Erriberetako auzotarrak zaratatik babesteko neurriei buruzko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran azter dadin.

AZALPENA

Hamar urte baino gehiago daramatzate Loiolako Erriberetako auzotarrak jakinarazten zarataren ondoriozko enbarazuak. Zarata hori Donostiako saihesbideak (G-20 errepidea, foru aldundiaren titulartasunekoa) eta auzoa zeharkatzen duen trenbide bikoitzak eragindakoa da.

Gogora ekarri behar da 2016. urtearen amaieran Loiolako Erriberak, Amara eta Morlans Babes Akustiko Bereziko Eremu izendatu zituela Udalak. Hori hala izanik, gomendatutako balioak aise gainditzen dituen zaratak eragindako kalteak minimizatzeko hainbat neurri hartzea aurreikusi zen.

Erriberetako auzotarrak behin baino gehiagotan joan dira Donostiako Udalera, bai eta alkatearengana berarengana ere, eskatzera enbarazu horiek minimizatzeko neurri zehatzak eta eraginkorrak har daitezten; baina gaurdaino ez da ezer asko lortu. Aitzitik, auzotarren ustez “okerrera” egin du egoerak, eta ibilgailuek eta trenek beren auzoan eragiten duten zarata arintzeko neurri jakinak ere proposatu dituzte.

Ekainean, Gune Publikoen Batzordean, hiriko alkateak onartu zuen egoera, eta adierazi zuen administrazio eskudunekin (Eusko Jaurlaritza eta Aldundia, batez ere) hitz egiten jarraitzeko asmoa zuela, auzotarren bizi kalitatea hobetzeko irtenbideak bilatze aldera.

Hala ere, adierazpen horiek pesimismo kutsua zuten; izan ere, alkateak aditzera eman zuen, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundia urruti zegoela behar den erabakia hartzeko, itxuraz, auzotarrek bizi dituzten arazoei konponbidea emate aldera. Aitzitik, Gipuzkoako Foru Aldundia ez dago konprometituta auzoan sortzen

diren arazoak minimizatzearekin; erakunde horren ohiko jarrera hiriaren interes orokorrekiko.

Donostiako alkateak, donostiar guztien ordezkari politiko gorenak, ezin du onartu beste erakunde batzuek Donostia gutxiestea, eta prozesuaren buru izan behar du, Loiolako Erriberetako auzotarren arazoei, kasu honetan, irtenbidea eman ahal izateko.

Aurrekontu gabeziaren aitzakiak –arrazoi hori eman baita– ezin du ez alde batera utzi eta ez luzatu egoera hori. Horregatik guztiagatik aurkezten du idatzia sinatzen duen bozeramaileak honako MOZIO ARRUNT hau:

1.- Donostiako Osoko Bilkurak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari izendatzeko 2019ko aurrekontuetan, foru aldundiaren aurrekontuetan, kontu sail bat zarataren aurkako pantailak instalatzeko eta asfalto mota zein juntura mota hobetzeko, xede izanik G-20 errepideak Loiolako Erriberak auzo parean sortzen duen zaratak eragindako enbarazuak minimizatzea.

2.- Donostiako Osoko Bilkurak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari erantzuteko Loiolako Erriberetako auzotarren eskaerei, eta beharrezko neurriak hartzeko Euskotren konpainiako trenak auzo parean sortzen dituen enbarazuak minimizatzeke, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko 2019rako aurrekontuetan kontu sail bat izendatzeko.

Donostian, 2018ko ekainaren 29an

Miren Albistur Garmendia,
Alderdi Popularraren bozeramailea.